 <p>OSATEK</p>	<p align="center">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p align="center">IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4 2016-11-18</p>
---	--	--

2011ko azaroaren 16an, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Legegintzako 3/2011 Errege Dekretua argitaratu zen. Horren bidez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina (aurrerantzean, SPKLTB) onartu zen; eta, 2011ko abenduaren 16tik dago indarrean.

SPKLTB berriak neurri handiagoan edo txikiagoan arautzen ditu sektore publikoko entitateen kontratazio-prozedurak, haien izaera juridikoaren eta egiten dituzten kontratuen arabera. OSATEK SA sozietate publikoa horien artean dago.

SPKLTBren 3.3.b) artikuluan ezarritako irizpideen arabera, OSATEK SAK esleipen-ahalmena du. Horrek zehaztu egiten du bere kontratazio-prozedurei aplikatu beharreko esparru juridikoa, eta beharrezko egiten du kontratazioko barne-jarraibideak ezartzea erregulazio harmonizaturik gabeko kontratuetaarako, SPKLTBren 191. artikulua dionekin bat.

Eskakizun hori betetzeko, OSATEK SAKo Administrazio Kontseiluak, azaroaren 18ko 3/2016 bileran, barne-jarraibide hauek onartu zituen erregulazio harmonizaturik gabeko kontratuetaarako. Jarraibideok Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko Legegintzako 3/2011 Errege Dekretura moldatzen dira.


OSATEK SAK egingo dituen kontratuak izaera pribatukoak izango dira, eta SPKLTBn ezarritakoa beteko dute, prestakuntzari, esleipenari eta aldaketari dagokienez.

OSATEK SAK onartutako jarraibideak nahitaez betetzekoak izango dira sozietatearen beraren barnean eta horien bidez arautuko da erregulazio harmonizatuaren mende ez dauden kontratuen kontratazioa. Hala, bermatuta egongo dira arlo horri buruzko Europako direktibetan araututako printzipio nagusiak, hala nola horien transposizioa ordenamendu juridikoan: publikotasun, lehia, gardentasun, konfidentziasun, berdintasun eta bazterketa-ezaren printzipioa.

KONTZEPTU OROKORRAK

Lehena.- 1- Kontratazioa arautzeko printzipioak

Jarraibide hauek aplikatu behar zaizkien kontratuak SPKLTBko 1. artikuluan jasotako printzipioen pean izango dira, eta kontratu horien esleipena publikotasun-, lehia-, gardentasun-, konfidentziasun-, berdintasun- eta diskriminaziorik ezaren printzipioen pean egingo da, SPKLTBko 191. artikulua arabera.

 <p>OSATEK</p>	<p align="center">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p align="center">IT.05.12</p> <p align="center">Berrik.: 4 2016-11-18</p>
--	--	---

- *Publikotasun-printzipioa*: balizko lizitatzailer guztien onuran, OSATEK SAREN kontratu-informazioa eskainiko duten hedabide egokiak eta behar bezain eskuragarriak aplikatzea.

- *Gardentasun-printzipioa*: kontratuaren informazioa ezagutzera ematea esleipena baino lehen eta modu egokian, balizko lizitatzailer orori lizitazioan parte hartzeko interesa adierazteko aukera baldintza berdinetan eskainita. Horrenbestez, parte-hartzaileek esleituko den kontratuaren arau aplikagarriak aurretiaz ezagutuko dituzte, berdin aplikatuko direla ziur egonik.

- *Konfidentzialtasun-printzipioa*: OSATEK SAK hautagaiek emandako informazioa ez jakinarazteko konpromisoa hartuko du, baldin eta konfidentzialtat jo badute, eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude, eta, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen alderdi konfidentzialak badira. Halaber, enpresaburuek konfidentzial gisa izendatutako informazioa edo izaeragatik konfidentzial gisa tratatu beharrekoa konfidentzialtasun-printzipioaren arabera tratatuko dute, kontratua gauzatzeko eskuratuko duten informazioari dagokionez.


- *Berdintasunaren eta bazterketa-ezaren printzipioa*: OSATEK SAK, kontratazio-espeditente bakoitza osatzen duten agirietan, kontratuaren xedea zehazteko garaian, idazketa ez-baztertzailer erabiltzea zainduko du eta ez du aipamenik egingo fabrikazio-lekuaren, marken, patenteen, moten, jatorriaren edo ekoizpenen inguruan, salbu eta kontratuaren xedea mota horretako aipamenak egitea justifikatzen badu eta «baliokidea» izenlaguna gehitzen bada. Halaber, sarbide-berdintasuna bermatuko du estatu kide guztietako operadore ekonomikoentzat, guztiek izan ditzaten informazio bera baldintza beretan.

- *Lehia-printzipioa*: OSATEK SAK beharrezkoak diren neurri osagarriak hartuko ditu balizko lizitatzailer sarbidea eta parte hartzea errazteko, eta merkatuko lehiari bide emango dio kontratua abantaila ekonomiko gehien dituen eskaintzari esleitzeko.


Aipatutako printzipioak egiaz betetzen direla bermatze aldera, OSATEK SAK jarraibide hauen arabera izapidetuko dituen kontratazio-prozeduretan, kontratazio-organoen jardunak printzipio horiek betetzea izango du xede, beti.

Jarraibide hauetako hurrengo idatz-zati hauek betetzen direnean joko dira betetzat printzipio hauek. Jarraibide horiek aplikatzeko eta interpretatzeko, honako jardun-irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Publikotasun-printzipioa betetzat eman ahal izango da, balizko lizitatzailer guztien onuran, OSATEK SAREN kontratu-informazioa eskainiko duten hedabide egokiak eta behar bezain eskuragarriak aplikatu badira merkatuko lehiari bide emateko.

 <p>OSATEK</p>	<p align="center">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p align="center">IT.05.12</p> <p align="center">Berrik.: 4 2016-11-18</p>
--	--	---

- b) Gardentasunaren-printzipioa betetzat eman ahal izango da, kontratuaren informazioa esleipena baino lehen eta modu egokian ezagutzera eman bada, balizko lizitatzaille orori lizitazioan parte hartzeko interesa adierazteko aukera eskainita. Horrenbestez, parte-hartzaile guztiek aurrez ezagutuko dituzte esleituako zaien kontratuari aplikagarri zaizkion arauak.
- c) Beharrezkoak diren neurriak hartuko dira, jarraibideotan xedatutakoaren arabera, balizko lizitatzailen sarbidea eta parte-hartzea erraztu eta kontratua abantaila ekonomiko gehien dituen eskaintzari esleitzeko.
- d) Konfidentzialtasun-printzipioa betetzat eman ahal izango da, OSATEK SAK enpresaburuek emandako informazioa ez jakinarazteko betebeharra bere gain hartzen badu, baldin eta konfidentzialtat jo badute, eta horretarako arrazoi justifikatuak badaude, eta, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen alderdi konfidentzialak badira. Era berean, printzipio hori aplikatuta, enpresaburuek pleguetan edo kontratuan konfidentzial gisa izendatutako informazioa edo izaeragatik konfidentzial gisa tratatu beharrekoa konfidentzialtasun-printzipioaren arabera tratatuko dute, kontratua gauzatzeko eskuratuko duten informazioari dagokionez.
- e) Berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioa bermatze aldera, prozeduretan inpartzialtasuna eta ekitatea bermatzeko behar diren neurriak onartuko dira. Honakoak izango dira neurri horiek, gutxienez:
- i) Kontratuen xedea bazterketarik ez eragiteko moduan deskribatuko da beti, fabrikazio edo jatorri jakinik, produktu berezirik edo marka, patente, eredu, jatorri edo produkzio jakinik aipatu gabe, betiere era horretako erreferentzia bat behar bezala justifikatzen ez bada eta «edo baliokidea» aipamenarekin batera badao.
 - ii) Ez da ezarriko Europar Batasuneko gainerako estatu kideetako balizko lizitatzailleak zuzenean edo zeharka baztertea eragin dezakeen baldintzarik.
 - iii) Hautagaiei tituluak, ziurtagiriak edo bestelako egiaztagiriak aurkezteko eskatzen bazaie, gainerako estatu kideetako dokumentuak onartu egingo dira, tituluak, ziurtagiriak edo bestelako diplomak aitortzeko printzipioari jarraikiz.
 - iv) Interesa agertzeko edo eskaintza bat aurkezteko emandako epeak egokitu egingo dira beste estatu kide batzuetako enpresek ebaluazio

 <p>OSATEK</p>	<p>KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p>IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4</p> <p>2016-11-18</p>
---	---	--

egokia egiteko aukera izan dezaten eta eskaintza bat aurkeztu ahal izan dezaten.

- v) Esleipen-prozeduran hornitzaile batek baino gehiagok parte hartzen badu, OSATEK SAK bermatu beharko du guztiek eskuratu dutela kontratuari buruzko informazio berdina baldintza berdinetan.

Bigarrena.- Aplikazio-esparrua

1.- Osatek SA sozietate publikoak erregulazio harmonizaturik gabeko kontratatuz jotzen ditu SPKLTBren 13.etik 17.era bitarteko artikuluetan aurreikusten ez direnak.

2.- Kontratu hauek prestatu eta esleitzeko erregimena erregulazio harmonizaturik gabeko kontratuatarako barne-jarraibide hauetan aurreikusten da, eta ondorioak eta azkentzea zuzenbide pribatuaren arabekoak dira.

SPKLTBk, aplikagarri den esparruan, ezartzen duenaren arabera, testu bateginaren mende egongo dira aipatutako lege horretako 3. artikuluan zerrendatutako entee, organismoek eta erakundeek egindako kostubidezko kontratuak, horien izaera juridikoa edozein dela ere, eta salbuespen hauekin:

- Erregulazio harmonizatuaren mendeko kontratuak
- Sektore-araudi aplikagarrian erregulatuak


Halaber, SPKLTBren 4. artikuluan zehaztutako negozioak eta kontratuak salbuetsita egongo dira.

Hirugarrena.- OSATEK SAREN kontratazio-espeditentea

OSATEK SAREN kontratazio-espeditentea kontratazio-prozesuan zehar sortutako dokumentuen multzo ordenatua da, egin beharreko kontratuaren ezaugarrien arabera artxibatuta (paperean edo euskarri elektronikoa edo bietan).

Laugarrena.- Kontratuaren premia eta egokitasuna

SPKLTBk ezarritakoaren arabera, sektore publikoko erakundeek eta organismoak egingo dituzten kontratuak beren xedeatarako beharrezkoak izan beharko dira. Ondorioz, aurretiazko gogoeta egin beharko da –kontratazio-espeditente bakoitza onartu aurretik– alderdi hauen gainean: kontratuaren xedea, bete nahi diren premiak eta prestazioaren edukia. Eskakizun hori betetzat eman ahal izango da, OSATEK SAKO

 <p>OSATEK</p>	<p>KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p>IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4</p> <p>2016-11-18</p>
---	---	--

zerbitzuak edo sailak izenpetutako premia-eskaera bat egiten badio kontratazio-organoari, horrek onartu eta sinatu dezan.

Bosgarrena.- Kontratazio-organoa

OSATEK SAko kontratazio-organoa zuzendari gerentea da, Administrazio Kontseiluak eskuordetuta. Hala ere, bestelako eskuordetzeak ere formaliza ditzakete bai Administrazio Kontseiluak bai zuzendari gerenteak, azken honek 6.000 eurotik beherako kontratuatarako.

Hala eta guztiz ere, zuzendari gerenteak eskumen horiek egikaritzeko, entitateko Administrazio Kontseiluaren aurretiko onarpena behar du, eragiketako balio estimatuak edo kontratu-balioak urtean 400.000,00 eurotik gora (BEZ gabe) ordaindu beharra dakarrenean erresonantzia magnetikoko ekipoen mantentze-lanetarako gastuetan, edo 90.151,82 eurotik gora ordaindu beharra funtzionamendu-gastuetan, edo 360.607,26 eurotik gora inbertsio-gastuetan.

Kontratuen balio estimatua, ondorio guztietarako, SPKLTBren 88. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu da.


Seigarrena.- Enpresariak OSATEKekin kontratatzeke izan behar duten gaitasuna

1.- SPKLTBren 54. eta hurrengo artikuluen arabera, OSATEK SArekin kontratatzeke, pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak izan zein atzerritarrak izan, jarduteko gaitasun osoa izan beharko dute, ez dute kontratatzeke debekurik izan behar, eta ahalmen ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionala dutela egiaztatu beharko dute, edo, Lege honek hala eskatzen duen kasuetan, behar bezala sailkatuta egon beharko dute.

2.- Enpresaburuak bete behar dituen gutxieneko kaudimen eskakizunak eta horiek egiaztatzeke dokumentazioa lizitazioaren iragarpenean aipatuko dira, eta kontratuaren pleguan zehaztuko. Xedearekin lotuta egon behar dute eta proportzionalak izan.

Erregulazio harmonizatua ez duten kontratuatan SPKLTBren 62. artikulutik 64.era bitartean adierazitakoez bestelako moduetan egiaztatu ahal izango da kaudimena; agirian eta lizitazio-iragarkian behar bezala zehaztuta.

Izaera orokorrez, enpresek kontratuaren xede den jarduera edo prestazioa egiteko eskatzen den gaitasun enpresariala edo profesionala izan beharko dute. Horretarako, kontuan hartuko dira SPKLTBren I. Liburuko II. Tituluko II. Kapituluko arauak.

 <p>OSATEK</p>	<p>KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p>IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4</p> <p>2016-11-18</p>
---	---	--

3.- OSATEK SAK egiten dituen kontratazio-prozeduretan, orokorrean, ez da behin-behineko edo behin betiko bermerik eskatuko, baldin eta kontratazio organoak ez badu berariaz hala egitea xedatzen pleguan eta iragarkian.

Izaera orokorrean, OSATEK SAK aseguru-poliza exijituko dio esleipendunari, eta poliza horrek behar besteko estaldura izan behar du egin beharreko lanari, entregatu beharreko hornigaiari edo eman beharreko zerbitzuari dagokienez.

Zazpigarrena.- Nazioarteko merkataritzan indarrean diren arauak eta erabilerak aplikatzea

Ondasunak eta zerbitzuak atzerriko enprekin kontratatuz gero, hizpide ditugun kontrataziorako barne jarraibide hauek aplikatuko dira, alde biek hitzartutakoaren kaltetan izan gabe (kontratuaren helburua den ondasun edo zerbitzuaren izaera edo berezitasunaren ondorioz, eta nazioarteko merkataritzan indarrean diren arau eta erabilerekin bat etorrita).

Zortzigarrena.- Kontratatzailearen profila

1.- SPKLTBren 53. artikularekin bat, eta kontratu-jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta eskuragarritasun publikoa bermatze aldera, kontratazio-informazioa Osakidetzako kontratugilearen profilaren bidez zabalduko da, edo Eusko Jaurlaritzak etorkizunean Administrazio Publiko guztiarentzat ezarri lezakeenaren bidez.


2.- Kontratugilearen profilean, OSATEK SAK egiten dituen kontratazio-prozedurei lotutako informazio garrantzitsua jarriko da, eta, beti ere, SPKLTBn edota jarraibide hauetan berariaz exijitzen dena.

3.- Kontratugilearen profilean sartzeko modua OSATEK SAKren web korporatiboan zehaztuko da, Osakidetzarenean, edota Eusko Jaurlaritzak zehaztu lezakeenean, bai eta lizitaziorako pleguetan eta iragarkietan ere.

4.- SPKLTBren 191. artikulua dioena betetzeko, jarraibide hauek kontratugilearen profilean argitaratuko dira, eta OSATEK SAK egiten dituen kontratuak esleitzeko prozeduretan parte hartu nahi duten guztien eskura egongo dira.

Bederatzigarrena.- Jurisdikzio eskuduna

1.- OSATEK SAK egiten dituen kontratuak prestatu eta esleitzeari lotutako auziak konpontzeko jurisdikzio-ordena eskuduna administrazioarekiko auziena izango da,

 <p>OSATEK</p>	<p style="text-align: center;">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p style="text-align: center;">IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4 2016-11-18</p>
---	---	---

erregulazio harmonizatua duten kontratuen kasuan, eta zibila, erregulazio harmonizaturik gabekoetan.

2.- Harmonizatuak izan zein ez, jurisdikzio-ordena zibila izango da eskuduna, beti, OSATEK SAK egiten dituen kontratuen ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez alderdien artean sortzen diren auziak ebazteko.

Hamargarrena.- Kontratuen izaera eta araubide juridikoa

1.- OSATEK SAK egindako kontratuak kontratu pribatuen izaera dute, SPKLTBren 20.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.- OSATEK SAK egindako kontratuen prestaketak eta esleipenak SPKLTBren, hura garatzeko xedapenen, eta kontratazio-jarraibide hauen arabera arautuko dira, eta, modu osagarrian, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko arauak ezarriko dira. Beren ondorioei eta iraungipenari dagokienez, zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira kontratuak.

Hala ere, kontratu hauei I. Liburuko V. Tituluko arauak aplikatu beharko zaizkie, kontratuak aldatzeari buruzkoak, testu bateginean idatzita dauden bezala.

Hamaikagarrena.- Ohar orokorrak


1.- SPKLTBren 28. artikulua arabera, OSATEK SAKen kontratazioa formala da; hortaz, ezingo da hitzezko kontraturik egin, kontratua, SPKLTBren 113.1 artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, premiazkoa izan ezean. OSATEK SAK egingo dituen erregulazio harmonizaturik gabeko kontratuak, kontratatuko den zerbitzuaren edo ondasunaren izaeraren arabera, kategoria hauetan sailkatzen dira:

- a) Obrak.
- b) Zerbitzuak
- c) Hornikuntzak

2.- OSATEK SAK egingo dituen erregulazio harmonizaturik gabeko kontratuen iraupena eta luzapena kontratu bakoitzari dagokion baldintzen pleguan edo dokumentuan ezarriko dira eta, kasu guztietan, lehiaren printzipioa errespetatuko da.

Hamabigarrena.- Prestaketa

- **Prestaketari aplikatu beharreko araubide juridikoa**

 <p>OSATEK</p>	<p align="center">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p align="center">IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4 2016-11-18</p>
---	--	--

1.- Atal honetako arauak aplikatuko zaizkio erregulazio harmonizaturik gabeko kontratuen prestaketari, kontratu bakoitzaren zenbatekoaren arabera.

2.- Ondorio guztietarako, kontratuen balio estimatua kontratazio-organoaren estimazioen araberrako guztirako zenbatekoak zehaztuko du (Balio Erantsiaren gaineko Zerga gabe). Guztirako zenbateko estimatua kalkulatzeko, kontuan hartu beharko dira kontratuaren balizko edozein aukera eta balizko luzapenak.

Ondorio horietarako, kontratuetan sartzen diren luzapenen zenbatekoa kontratuen guztirako zenbatekoaren osagai gisa zenbatuko da, baita kontratuen balizko aldaketei lotuta aurreikus daitezkeen zenbatekoa ere, SPKLTBren 88. artikuluko 1. ataleko 3. paragrafo berrian agertzen den moduan:

«106. artikuluan xedatutakoaren arabera, lizitazio pleguetan edo iragarkian kontratua aldatzeko aukera aurreikusi bada, kontratuaren balio estimatua izango da honek izan dezakeen guztirako zenbatekorik handiena, aurreikusten diren aldaketa guztiak kontuan hartuta.»

3.- Kasu guztietan, kontratua prestatzean, aurretik gastuak baimenduta egon behar du, eta baimen horretan kreditu nahikoa dagoela jaso beharko da.

➤ **50.000 eurotik beherako kontratuak**


1.- Kontratu mota edozein dela ere (zerbitzuak, hornikuntza edo obrak), zenbatekoa 50.000 eurotik beherakoa bada (BEZ gabe), dokumentu batean erosteko edo hornitzeko agindua jaso beharko da, kontratatu beharreko ondasunen edo zerbitzuen oinarritzko datuekin, eta dagokion gastu-baimena eduki beharko da.

Ez da beharrezkoa izango gastu-baimena aurretik izatea 2.000 eurotik beherako gastuetarako.

3.- Obra-kontratuan, gainera, obra-aurrekontua gehitu beharko da, eta, berriazko arauak hala eskatuz gero, dagokion proiektua erantsi beharko da.

4.- 20.000tik 49.999 eurora bitarteko kontratuetan, eskaintza-eskaerako dokumentu bat egingo da, eta bertan eskaintzarako eskakizun eta baldintzak jasoko dira. Agiri horretan, gutxienez, informazio hau eman beharko zaio kontratistari:

- a) Kontratuaren xedea eta horren funtsezko ezaugarriak.
- b) Kontratuaren prezioa, aplikatu beharreko zergak zehaztuta. Kasu askotan, alderdi hau irekita utzi daiteke, eta hornitzaileei beren preziorik onena aurkezteko eskatu dakieke, eskatutako zerbitzu edo hornidurari dagokionez.

 <p>OSATEK</p>	<p align="center">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p align="center">IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4 2016-11-18</p>
---	--	--

- c) Kontratuaren iraupena eta luzapenak, hala badagokio.
- d) Ondasuna edo zerbitzua entregatu edo gauzatzeko tokia eta epea.
- e) Zerbitzua edo hornidura behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotako beste edozein baldintza, edo eskuratu beharreko ondasunaren ezaugarriak lotutakoak.


Eskaintza-eskaerako dokumentua gaitasuna duten hiru zuzkitzaile edo hornitzailei bidaliko zaizkie, gutxienez.

➤ **50.000 eta 209.000 eurora bitarteko kontratuak ⁽¹⁾**

1.- 50.000tik 209.000 eurora bitarteko kontratuak dira (BEZ gabe), kontratu mota edozein dela ere (zerbitzuak, hornikuntzak edo obrak).

2.- Kontratu hauetan, «Baldintzen Plegua» egingo da, bertan informazio hau jarrita, gutxienez:

- a) Kontratuaren xedea eta horren funtsezko eta oinarrizko ezaugarriak.
- b) Kontratuaren prezioa, aplikatu beharreko zergak zehaztuta.
- c) Kontratuaren iraupena eta luzapenak, hala badagokio.
- d) Kontratua esleitzeko modua.
- e) Eskaintzak jasotzeko epea, beti nahikoa izan beharko duena lehiaren, berdintasunaren eta bazterketa ezaren printzipioak bermatzeko.
- f) Lizitzaileek aurkeztu beharreko dokumentazioa, eta eskaintzak aurkezteko modua eta modalitateak.
- g) Aldaerak onartzeko araubidea.
- h) Eskaintza egitera gonbidatuko diren lizitzaileak aukeratzeko irizpide objektiboak.
- i) Kontratua esleitzeko kontuan hartuko diren irizpide objektiboak.
- j) Ondasuna edo zerbitzua entregatu edo gauzatzeko tokia eta epea.
- k) Lizitzaileek edo esleipendunak ezarri beharreko bermeak, hala badagokio.
- l) Ordaintzeko era eta faktura egiteko betebeharra.
- m) Subrogazio-baldintzak lan-kontratuetan, esleipendunari betebehar hori ezartzen bazaio.
- n) Bestelako baldintzak:
 - i. Ingurumen- eta/edo gizarte-oharrak.

 <p>OSATEK</p>	<p style="text-align: center;">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p style="text-align: center;">IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4 2016-11-18</p>
---	---	---

- ii. Zerbitzu edo hornidura motatik sortzen diren gaikuntzak eta/edo egiaztapenak.
- iii. Zerbitzua edo hornidura behar bezala gauzatzeko beharrezkotzat jotako beste edozein baldintza, edo eskuratu beharreko ondasunaren ezaugarriei lotutakoak.

o) Kontratuaren araubide juridikoa eta jurisdikzio eskuduna.

2.- Aurrekoez gainera, beste baldintza eta eskakizun batzuk ere sartu ahal izango dira, beti ere jarraibide hauen bigarren oharrean aipatzen diren printzipioak betetzen direla bermatzen bada.

➤ **209.000 eurotik gorako eta 5.225.000 eurotik beherako obra-kontratuak (1)**

Kontratu mota hauetan, SPKLTBn ezarritako printzipioak betetzeari begira, aurreko Klausulako prozedurari jarraituko zaio, betebeharrak hauekin:

- Publikotasun-printzipioa bermatuko da, lizitazioa kontratugilearen profileen eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuz.

- Dagokion kontratazio-mahaiak adieraziko du eskaintzak noiz zabaldu eta kalifikatuko diren, eta esleipen-proposamena noiz egingo zaion kontratazio-organoari.

Hamahirugarrena.- Esleipena


➤ **50.000 eurotik beherako kontratuak**

OSATEK SAK duen beharraren arabera, hornitzaile egokiena hautatuko da zuzenean, dagokion arloan edo sektorean zerbitzuak ematen, ondasunak hornitzen edo obrak egiten dituzten eta prestazioa gauzatzeko behar den gaikuntza profesionala duten hornitzaileen artean.

➤ **50.000 eta 209.000 eurora bitarteko kontratuak (1)**

1.- 50.000tik 209.000 eurora bitarteko kontratuak dira (BEZ gabe), kontratu mota edozein dela ere (zerbitzuak, hornikuntzak edo obrak).

2.- Kasu honetan, kontratugilearen profileen lizitazio-iragarkia argitaratuko da, baldintza-pleguarekin batera; hala ere, OSATEK SAK bestelako mekanismoak erabili ditzake publizitatea egiteko.

 <p>OSATEK</p>	<p>KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p>IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4</p> <p>2016-11-18</p>
---	---	--

Lizitazio-iragarkian, gutxienez, esleitu beharreko kontratuaren funtsezko ezaugarrien deskribapen laburra jasoko da, baita enprekin negoziatu beharreko alderdi ekonomiko eta teknikoak ere.

3.- OSATEK SAREN ekipamenduen ezaugarri tekniko bereziak aintzat hartuta, kontratazio-organoak behar dituen txosten teknikoak eskatu ditzake. Kontratazio-unitateak prozedura izapidetuko du, aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko du, eskaintzak baloratzeko ditu eta esleipen-proposamena egingo dio kontratazio-organoari.

Eskaintzak baloratzeko irizpideei dagokienez, formulak aplikatuz era automatikoki ebaluatzen diren irizpideei ponderazio txikiagoa ematen zaienean balio-judizioan oinarritutako kuantifikazioari lotutako irizpideei baino, kontratazio-organoak egokitzat jo dezake aditu batzorde bat eratzea; bertan, kontratazio-xedean esperientzia duten hiru profesionalak, gutxienez, parte hartu beharko dute.

4.- Kontratua eskaintza ekonomikorik onenari esleituko zaio, Pleguan ezarritako irizpide ekonomiko edota teknikoaren arabera. Balorazio-irizpide bakarra badago, prezioak izan behar du, derrigorrez.

5.- Esleipena lizitatuazile guztiei jakinaraziko zaie, eta kontratugilearen profileen argitaratuko da.


➤ **209.000 eurotik gorako eta 5.225.000 eurotik beherako obra-kontratuak ⁽¹⁾**

1.- Kasu honetan, lizitazio-iragarkia eta baldintzen plegua kontratugilearen profileen eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira.

2.- Dagokion kontratazio-mahaiak eskaintzak ireki eta kalifikatu beharko ditu, eta esleipen-proposamena egin beharko dio kontratazio-organoari, kasu bakoitzean beharrezkoak izan daitezkeen txosten teknikoak egin ondoren, eta Baldintzen Pleguan ezarritako esleipen-irizpideen ponderazioaren arabera.

Eskaintzak baloratzeko irizpideei dagokienez, formulak aplikatuz era automatikoki ebaluatzen diren irizpideei ponderazio txikiagoa ematen zaienean balio-judizioan oinarritutako kuantifikazioari lotutako irizpideei baino, kontratazio-organoak egokitzat jo dezake aditu batzorde bat eratzea; bertan, kontratazio-xedean esperientzia duten hiru profesionalak, gutxienez, parte hartu beharko dute.

3.- Kontratua eskaintza ekonomikorik onenari esleituko zaio, Baldintzen Pleguan ezarritako esleipen-irizpideen ponderazioaren arabera. Balorazio-irizpide bakarra badago, prezioak izan behar du, derrigorrez.

 <p>OSATEK</p>	<p>KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p>IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4</p> <p>2016-11-18</p>
---	---	--

4.- Esleipena lizitatzailer guztiei jakinaraziko zaie, eta kontratugilearen profileen eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Hamalaugarrena.- Kontrata formalizatzea

1.- Baldintzen pleguan edo betekizunen eta baldintzen dokumentuan jasota egon ezean, OSATEK SAK egiten dituen erregulazio harmonizaturik gabeko kontratuetan nahitaez aipamen hauek jaso beharko dira:


- a) Alderdien identifikazioa.
- b) Sinatzaileek kontrata izenpetzeko duten gaitasunaren egiaztapena.
- c) Kontratuaren xedea.
- d) Kontratuari aplikatzekoa den legeria.
- e) Kontrata osatzen duten dokumentuen zerrenda.
- f) Prezio zehatza, edo hori zehazteko modua.
- g) Kontratuaren iraupena edo gauzaten hasteko eta amaitzeko aurreikusitako datak, baita luzapena edo luzapenak ere, aurreikusita badaude.
- h) Prestazioak hartu, entregatu edo onartzeko baldintzak.
- i) Ordaintzeko baldintzak.
- j) Zer kasutan den egokia kontrata etetea.
- k) Hala behar denean, kontratistari ezartzen zaion konfidentzialtasun-betebeharraren neurri objektiboa eta denborazkoa.

2.- Kontratuaren osagai izango dira eskaintzarako betekizunen eta baldintzen dokumentua, edo baldintzen plegua, eta hautatutako hornitzailearen eskaintza.

Kontratu-dokumentuak ezin izango du akordiorik jaso, alderdientzat pleguan edo betekizunen eta baldintzen dokumentuan aurreikusitako eta esleipendunaren eskaintzaren arabera zehaztutako eskubideak eta betebeharrak aldatzeko.

3.- Aurreko bi ataletan ezarritakoa hala izanda ere, 50.000 eurotik beherako erosketak eta gastuak izanez gero, kontrata formalizatzeko nahikoa izango da gastua onartzea eta dagokion faktura eta eskaintzako dokumentuak eranstea.

4.- Oro har, kontrata formalizatu beharko da lizitatzailerari eta izangaiei esleipenaren jakinarazpena egin eta hurrengo hamabost egun balioduneko epearen barruan, Testu Bateginak jasotzen duenaren arabera (156.3 art.).

 <p>OSATEK</p>	<p align="center">KONTRATAZIO PUBLIKOA KONTRATAZIOKO BARNE-JARRAIBIDEAK ERREGULAZIO HARMONIZATURIK GABEKO KONTRATUETARAKO</p>	<p align="center">IT.05.12</p> <p>Berrik.: 4 2016-11-18</p>
--	--	--

Testu bateginaren 40.1 artikulua arabera, kontratazio-arloko errekurtsio berezia jarri daitekeen kontratua izanez gero, formalizazioa ezin izango da egin lizitatzailerei eta izangaiei jakinarazpena igorri eta hamabost egun baliodun igaro aurretik.

Esleitzeko ahalmena dutenek beren jarraibideak ezarri ahal dituzten arren, OSATEK SAre kontratuak kontratu pribatuzat jotzen dira, eta, prestaketari eta esleipenari dagokienez, SPKLTBren araupean daude, 20.2. artikulua arabera.

Hamabosgarrena.- Amaierako oharrak

1.- Kontrataziorako barne jarraibideen eta SPKLTBren arteko erlazioa:

Kontrataziorako barne jarraibide hauetan jasotakoa bat ez badator SPKLTBren xedapenekin eta horiek garatzeko araudiarekin, azken hauei jarraitu beharko zaie.

2.- Indarrean jartzea:

Kontrataziorako barne jarraibide hauek indarrean jarriko dira OSATEK SAKo Administrazio Kontseiluak onartzen dituen egun berean, eta egun horretatik aurrera hasten diren kontratazio-espedientei aplikatuko zaizkie.

3.- Garapena:

OSATEK SAKo zuzendari gerenteari baimena ematen zaio jarraibide hauek garatu eta moldatzeko, eta horren berri Administrazio Kontseiluari eman beharko dio.

(1) Edo Europako Batzordeak aurrerantzean zehaztuko duen zenbatekoa, SPKLTBren hamaikagarren xedapen gehigarriaren arabera.